

KOIPUAREN EGUNGO EGOERA E.A.E.n

Koipuaren itxura orokorra arratoi handi batena da isats luze, biluzi eta zilindriko batekin. Hainbat moldaera dauzka bizimodu erdi-urtarrerako: belarri txikiak, begiak eta sudurzuloak buruaren goialdean kokatuak, atzeko oinak palmatuak eta ebakortzen atzetik ixten diren ezpainak. Ebakortzak handi eta laranjak dira eta beti daude agerian. 5 eta 10 Kg bitartean izaten du eta 60 zentimetro inguru neurtzen du burutik isatseraino; arrak emeak baino handiagoak izaten dira. Ilajea arrea edo jengibre kolorekoa izaten da, hainbat ile horixka luzeagorekin. Muturra eta musuak zurixkak dira. Ezaugarri hauek koipua Penintsula Iberiarreko gainerako animalia basatiekiko nahastezina bihurtzen dute.

2002an argitaraturiko zentsuek koipua E.A.E.n, Bidasoako arroan kokatzen zuten, Gipuzkoan, arroaren behealdean bere dentsitatea benetan kezagarria izanik. 2003an argitaraturiko beste datu batzuk Oiartzun ibaiaren arroan eta Leitzarain haranean animalia presentzia baieztatzen zuten. Itxuraz bere banaketa eremua mendebaldeantzat zabalduta zen eta ale kopurua emendatu egin zen. Kontuan hartuta espeziearen kolonizazio ohiturak eta datuek erakusten zuten joera, Haritzalde Naturzaleen Elkarteak, E.A.E.n koipuaren egungo egoeraren azterketa zehatzagoa egitea iradoki zuen, 2004an burutzekoa. Egun, Nafarroan **Sartutako espezie** eta **Izurri** gisa sailkatuta dago, E.A.E.n aldiz, **Ez mehatxatua** bezala.

Ikerketa Gipuzkoan burutu da, Bidasoa, Oiartzun, Urumea eta Oria ibaien arroetan. Zarauzko eta Urolako estuario eta paduretan behaketak egin dira, baina emaitza beti negatiboa izan da. Guztira 105 Km burutu ziren trantsektuetan, Gipuzkoako lau arro hauetan.

Lagindutako lau arroetatik hirutan, finkatutako populazioak topatu dira. Bidasoa ibaiaren Gipuzkoako zati osoan koipu arrasto ugari topa daitezke urte osoan zehar, ibaiaren behealdea izanik, eta bereziki Plaiaundi eta Jaizubiako padurak, banako kopuru

eta dentsitate handieneko guneak. Plaiiaundi Parke Ekologikoan esaterako, hektareako 2-3 banako daudela kalkulatu da. Oiartzun ibaiaren arroan, Oreretan, populazio bat dago, ibaiaren urak presa baten eraginez mantsotzen diren tokian. Bestalde, ikerketa honetan, Urumearen beheko zatian tamaina kontuan hartzeko moduko tamainako populazio egonkor bat topatu da. Hernani eta Donostiako 27. Poligonoaren bitarteko zatian, urte osoan zehar aurkitu dira koipu-arrastoak. Oria ibaiaren arroan, Leitzaranean neguan topatu ziren berriki egindako arrasto bakarrak. Hala ere, ibaiaren goi-ibilguan, Seguran, eta behe-ibilguan, Oriako itsasadarrean, hainbat koipu-zulo aurkitu ziren. Abendu bukaeran, kotxe batek harrapatutako ar gazte bat topatu zen Usurbilen, dispersioan zihoana seguruenik, ibaiaren ondoko errepede batean.

Dirudenez, espezie hau bere banaketa eremua zabaltzen ari da arroz-arro mendebalderantz. Oria ibaiaren behe-ibilguan, ez dirudi oraindik populazio finkorik dagoenik, ala ez da oraindik detektagarria izateko behar bezain handia, baina denbora kontua besterik ez da. Gure datuen arabera, 190-220 banakoko populazioa dago E.A.E.n.



1. irudia: Laginketan zehar topatutako oinen eta isatsaren arrastoak uretatik irteten (ezkerrean) eta koipugorotzak (eskuinean).

Plaiiaundi Parke Ekologikoan eta Jaizubian tranpa bidez burutu den banako-murrizketak, metodo eraginkorrena dirudi koipu-populazioak kopuru egonkor eta kaltegabeko batean mantentzeko, gure inguruko paduretako biodibertsitatearentzat. Egokia deritzogu, oraindik garaiz dabilzan tokietan erradikazio-kanpaina bat burutzeari, irtenbiderik gabeko arazo bilakatu aurretik.